

1.BULETINA

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK



BASOA

KAIXO! ikasturte honetan 15. helburuari (GIH) begira jarriko gara eta **BASOAK** izango ditugu aztergai. Aitzaki honekin animatu nahi zaituztegu basora gerturatzeraz, paseo bat ematera eta basoek eskaintzen dizkiguten balioak preziaztera. Udazkenean gainera, basoak bere garai ederrenetako bat eskaintzen digu.

LANA EGITEKO BEROKETA!

Lan guztiekin bezala, herriko BASOEN diagnostikoa egin aurretik prestakuntza egitea komeni da, "Sentsibilizazio eta motibazio"rako ariketak egingo ditugu. Eskola bakoitzak aukeratuko du erritmoa, zer eta nola egin. Aukera zabala da!



Aduna, Alegia, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Ibarra, Irura, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo adin ezberdinetako 7.713 ikasle inguruk eta bere familiek parte hartzen dute Eskolako Agenda 2030 egitasmoan, guztien artean Tolosaldeko herriak jasangarritasunaren bidean jartzeko.